

GUTXIAGO KUTSATUZ PRODUZITZEKO EGITASMOA ABIAN

Arrasate

P R E S S

1995eko
irailak 8
287. zenb.

ELKARRIZKETA

**Eider Madina eta
Iratxe Berasaluze**

KIROLAK

**Saski baloi
talde berritua**

BERRIAK

**EA ere udal
gobernuan**

**Besterik
ezean
neskame**





altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
 - Liderrak muntaiak
- Betiko muntaiak



Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua



expert



banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 77 10 97

Aretxabaleta

Abuztua Arrasaten

Lehenengo alditan halabeharrez egin nuen lan abuztuan. Lantegi aldaketak ekarri zuen ondorio hori eta hasiera batean ez zitzaidan asko gustatu, hain nituen maiteak abuztuko bidaiak... Hilabete osoko joanaldi haien ordezkoppor zatikatuekin ez nuen uste ezer onik egin ahal izango nuenik, baina okernongoen.

Berehala frogatu nuen abuztuz kanpoko irtenaldiak abantaila ugari dutela, prezio, aukera eta lasaitasunaren aldetik. Eta, era berean, laister asko ikusi nuen Arrasate bezalako barnealdeko herri batean abuztua oso atsegina izan zitekeela. Alde batetik, lana bera erosotu egiten da herritarren erdiak aldegin eta gero. Geratzen garenon artean, berriz, urritasunak hurbiltasuna sortzen du nonbait, harremanak errazagotu egiten dira, kideatasuna areagotu.

Egia da goizean goiz kafea hartzeko komeriak egin behar direla, ATB eta ARRASATE PRESSik ez dagoela, zinerik ere ez. Baina aparkatzeko tokia biderkatu egiten da, Arabako pantanoek hurbilago dirudite eta iluntzetako giroa sorginagoa da kaleko terrazetan.

Bestalde, herriaren moteltasunak astia ematen du zenbait gai edo gertakizun patxada gehiagoz irakurri, ikusi eta

komentatzeko. Aurtengo abuztuan, adibidez, uztailetik geratutako oihartzunak zioen Arrasateko udalean ez dela irailean zentsura moziorik izango eta denbora gehiago galdu barik hasiko dela aurrekontuen prestaketa. Ni neu ere prestaketan hasia naiz Behobia-Donostiarako, Martin Fizek munduko maratoi txapelketa nola irabazi zuen ikusi eta gero, nire azken urteotako denbora hobetuko dudan esperantzan. Aldiz, ez daukat esperantza handirik GAL, Galindo eta gainontzeko trapu zikinak aurtengo abuztuan baino garbiago ikustera iritsiko garenik. Aurrerantzean horrelakorik gerta ez dadin lortzea ez litzateke gutxi. Lorpen handiagoa izan da Arzallusena, zenbat toki eman dioten komunikabideetan obispoen kontu horrekin!

Eta bitartean, herriko dendariak nahiko gustora abuztuan egindako salmentekin, zabalik egon diren tabernak ere bai, Uherkapeko lanak amaieratik hurbilago, eta herria lehengo lekuan, jakina.

Abuztua Arrasaten eman dugunoi geratzen zaigun azken lana, oporretatik bueltan zatotzenen kontakizunak interes aurpegiz entzutea.

MIKEL IRIZAR

**GATZAGAN
GIRO ALAIENA**

**ZUHAITZ
jatetxean**




**Memesa
79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Laguntzaileak: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitateak:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASÁ taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kapi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Laminaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



Azaleko ilustrazioa: Golo Arana

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

LORAMENDI KIROLAK

%20
%50

2.000 pta
Pare solteak


Zapatilak

BEHERAPENAK!

%30

Txandalak
Sudaderak
Prakak
Kamisetak

Harpidedun, berritu edo oparitu harpidetza!



Arrasatetik kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat.
Arrasatetik kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrontean **2.500 ptako** diru sarrera egin dezakezu **urriak 20a baino lehen** kontu korronte zenbaki hauetako batean:

- KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS kanpotar bati bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.



77 08 15

Azoka Kalea, 1 • ARRASATE

Zer da hobia lan egitea ala ikastea?



Mª Jose Muñoz
Ikaslea
(20 urte)

Ikastea. Ikasle zarenean azterketa garaia da txarrena baina bestela ondo pasatzen duzu. Lanera, berriz, egunero joan behar duzu eta beti berdina egiten nekatu egiten zara.



Roberto Pagaldai
Langilea
(36 urte)

Ikasle bizitza eta langileena ezagutzen ditut eta langile bizitzarekin gelditzen naiz. Gainera, langileok soldata irabazten dugu eta ikasten duzunean ez duzu dirurik.



Ritxar Arias
Langilea
(21 urte)

Lan egitea zalantza barik. Gainera zure dirua daukazu eta diruak aukera gehiago ematen dizu.




Danel Inurritegi
Ikaslea
(20 urte)

Ikastea, denbora libre gehiago duzu. Dena dela, ikasi eta lan egitea gustatuko litzaidake, batez ere dirua iza-teko.



Leonor Alonso
Etxekoandrea
(37 urte)

Ikasketak gogorrak dira, asko exigitzen dute, beraz, langile bizitza hobia dela uste dut.



Antonio Vicente
Langilea
(48 urte)

Biak dira onak. Ikastea prestakuntza hobia izateko eta ondoren lan egitea.



Bego Goizale
Langabetua
(30 urte)

Ikastea duda barik. Ikasle nintzenean ez zitzaidan gustatzen baina orain langileak eta ikasleak ikusten ditut eta ikasle bizitzarekin gertatzen naiz.



Ines Gardoki
Langilea
(40 urte)

Lan egitea hobeto. Ikasleak beti ikasten ari dira. Langileak berriz, 8 ordu egin eta kitto!



EKOMOBIL

PEUGEOT

**BISITA GAITZAZU ZALDISPE 2an
OSPITAL ONDOAN**

Iraileko eskaintza berezia:

0 km. duten auto matrikulatuak / Modelo desberdinak

Zaldizpe, 2 (Ospital ondoan) Tfnoa: 79 50 71 Faxa: 79 97 12 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze gorria

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramio	(945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------	----------

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 58
Eskoriatza	79 03 22

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
----------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

Monterrogo liburutegia

Monterron	77 01 05
-----------	----------

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 8

Egunez eta gauez: Mozos, Bergara
10ak arte: Morales, San Andres

Larunbata 9

Egunez eta gauez: Puy, Bergara
10ak arte: Corcuera, Musakola

Igandea 10

Egunez eta gauez: Puy, Bergara
10ak arte: Amezua, Santamaina

Astelehena 11

Egunez eta gauez: Estella, Bergara
10ak arte: Ruiz, Maala

Astearte 12

Egunez eta gauez: Mozos, Bergara
10ak arte: Morales, San Andres

Asteazkena 13

Egunez eta gauez: Puy, Bergara
10ak arte: Corcuera, Musakola

Asteazkena 14

Egunez eta gauez: Mozos, Bergara
10ak arte: Amezua, Santamaina

8 OSTIRALA

• ZINEA

"Doble dragón" 7etan eta 10etan.

• EXTREMADURA EGUNA

Arratsaldeko 8etan jaien ospakizuna Estremadurako ardoarekin. 8.30etan dantza emanaldia. 10.30etan Corazón de Encina elkarte Rumba eta Flamenco taldeen emanaldia.

• GATZAGAKO JAIAK

Goizeko 11.30etan trikitixa Jaurerri anaiekin eta Otxandixotarrei ongi etorria. 12etan meza. 12.30etan txistorra eta ardoa. Ordubatean herri poteoa. 2.30etan jubilatuen bazkaria. Arratsaldeko 5etan umeentzat jolasak. Gaueko 12etan Joselu anaiekin dantzaldia eta 4etan berakatzopa.

• AIR VENENO ANTZERKIA

"Las veneno" taldearen Air Veneno antzezlanaren Elorrioko Arriola Kultur aretoan, gaueko 10.30etan.

9 LARUNBATA

• ZINEA

"Doble dragón" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• ARANTZAZUKO AMAREN EGUNA

Goizeko 11etan Meza Arantzazuko Santutegian eta ordu berean Arrasateko parrokiari.

• EXTREMADURA EGUNA

Landako urtegiaren egun pasatuz izango dute. Besteak beste kirol txapelketak, lehiaketak eta bazkaria egongo da.

• GATZAGAKO JAIAK

Goizeko 12etan Leintz Gatzagako artisautzaren erakusketa eta salmenta. Ordubatean txarangak alaituta herri poteoa. 2.30etan herri bazkaria. 3.30etan txirrindulari lasterketa 1 eta 2. mailako afizionatuentzat. 5etan Brisca txapelketa. 7etan fandango eta arin-arin txapelketak. Gaueko 11etan bolo txapelketa. 12etan Lisker taldearekin dantzaldia eta 5etan txokolatada.

10 IGANDEA

• ZINEA

"Liberad a Willy" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• KURTZEBARRI EGUNA

Aretxabaletatik irteera goizeko 9etan plazatik. 11.30etan Kurtzebarrin meza, salda eta txanpaina. Omenaldia egingo zaio Jose Luis Arana "Gatza" zenari.

• ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Mendara, Deba, Mutriku, Kalbarioa, Sasiola eta Arrasate, guztira 80 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterrondik.

• KONTZERTUA ELORRIOKO GAZTETXEAN

E.H. Sukarraren kontzertua Elorrioko gaztetxean gaueko 11etan.

• ARANTZAZURA ERROMES


Arantzazuko Santutegira erromesaldia. Oinez, autobusez edo eta autoz doazenak Arantzazu bideko Galtzan bilduko dira goizeko 9etan. Meza Nagusia 11etan izango da. Erromesaldira autobusez joan nahi duenak, Ecuador bidai agentzia har dezake txartela. Irteera goizeko 8.30etan Garibaiko geltokitik; jeitsiera eguerdiko ordubatean edo 5etan. Oinez joatea pentsatu dutenak goizeko 5.30etan elkartuko dira Kontzeziñon.

• EXTREMADURA EGUNA

Arratsaldeko 3.30etan tute, domino eta cuatrola txapelketak elkarte lokaletan eta 9etan jaien bukaera.

• GATZAGAKO JAIAK

Eguerdiko 12etan meza. 12.30etan kalejira "Bi Lagunekin". 1.30etan bertsolariak. 4.30etan mus txapelketa. 5.30etan pilota partiduak. 7.30etan Leintz Orkestra kamararen kontzertua. 10etan dantzaldia.



"CORAZON DE ENCINA"REN ARGAZKI ERAKUSKETA

Argazki erakusketa Corazon de Encina elkartearen lokalean. Gaia: Extremadurako paisaiak. Ordutegia: goizez 11etatik 12.30etara eta arratsaldeaz 6etatik 8.30etara.


11 ASTELEHENA

• ZINEA

"Liberad a Willy" 7etan eta 9.30etan.

• URBINA-MALTZAGA ETA TAUGRES AURREZ AURRE

Arrasateko Urbina Maltzaga saskibaloitza taldea eta Gasteizko Taugres-Basconia indarrazko neurritan dituzte arratsaldeko 7.30etan Iturripeko kiroldegia.



MUSIKA ESKOLETAKO MATRIKULAK ZABALIK

Arrasate Musikalek aurten ikasturterako matrikula zabaldu du eta irailaren 15a arte egongo da izena emateko aukera. Ordutegia lanegunetan arratsaldeko 5etatik 9ak arte.

Jesusi Etxebarria musika eskolako matrikula zabalik irailaren 4tik irailaren 30a bitartera. Izena ematea zabalik 5etatik 8etara Iturriotz kalea 32 behean, Tef: 79 17 67. Klaseak umeentzat bost urtetik hasita eta helduentzat.

MARTA GOMEZEN ERAKUSKETA

Marta Gomezen instalazioak Harresi aretoan irailaren 8tik 17a arte. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

12 ASTEARTEA

• ZINEA

"Liberad a Willy" 7etan eta 9.30etan.


ESKORIATZAKO KIROLDEGIA

Eskoriatzako kiroldegia zabalik dago. Lehenengo lau hilabetezako ekintza eta ikastaro ugari antolatu dira: mantentze soinketa, aerobik, muskulazioa...urtarrila arte ez dira abonatuak egingo, beraz, ekintza eta ikastaroetako prezioak guztientzat berdinak izango dira. Bestalde, frontoi eta kiroldegiko kantxak alokatzeko aukera zabalik dago. Zozketa irailaren 23an goizeko 12etan egingo da.



GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAINA

Irailaren 18tik urriaren bukaera arte gripearen aurkako txertaketa kanpaina egingo da Arrasaten. 65 urtetik gorakoek, diabetesa dutenek edo bihotzeko gaisotasunak dituztenek har dezakete txertoa. Gripearen aurkako txertoa hartzeko Arrasateko anbulategira jo behar da goizeko 9etatik eguerdiko ordubatera eta astelehenetik ostiralera. Horrez gain, honako egun zehatz hauetan auzo bakoitzeko alkatetza edo jubilatutako etxetara joango dira erizainak: irailaren 25ean San Andreseko alkatetzan, 26an Abaroan, 27an Uribarrin, 28an Santamainan, 29an Musakolan, Urriaren 2an Gesalibarren eta Gargartzan, 3an Udalan eta 4an Bedoñan. Eguerdiko 12etatik ordubatera bitartean izango da toki horietan erizain taldea.



BARRUKO IGERILEKUA ASTELEHENEAN ZABALIK

Musakolako barruko igerilekuak irailaren 11an astelehena zabalduko ditu ateak, aldi berean kanpoko igerilekuak itxi egingo da. Barruko igerilekuen ordutegia astelehenetik ostiralera goizeko 8.30etatik arratsaldeko 8.30etara. Larunbatetan goizeko 8.30etatik 7.30etara eta igandetan 8.30etatik 1.30etara. Bestalde, AUKEAren kirol kanpainarako izenematea zabalik dago, interesatuok Kiroldegitik pasa informazioa jasotzera.

CC.OO. K ANTOLATUTAKO IKASTAROAK

Euskera ikastaroa bigarren maila eta Ingles ikastaroa bigarren maila hasierako ezagupenekin. Iraupena 100 ordu eta dohainik izango da. Ikastaroaren hasiera irailaren 18an. Izenematea Langile Komisioetako lokalean edo 79 52 60 zenbakira deituta.

“Ez naiz emakume apurtzailea, eta irudi hori gustatu ere ez zait gustatzen. Ezin dut ezer berezirik saldu, nire apaltasuna eta telebista ondo edo txarto egitea baka-rik, azken urte hauek horretan eman ditut eta. Kalean telebista kamara bategaz hasi nintzen, Arrasaten. Neure programa produzitu, zuzendu eta aurkezten nuen. Oraindik egunen baten berriro zuzentze lanak egiteko asmoa daukat”.

Anne Igartiburu, uztailak 24.

interviú

“AHTaren eraikuntza eta gero bere funtzionamendua ahalbidetzea helburu duten ekintza akzesorio guztiek ondorio larriak dakartzate alor askotan. Hala, AHT proiektuak 128km. tunelen zulaketaz mehatxatzen ditu euskal mendiak Nafarroako iparraldean, Gipuzkoan, Bizkaia eta Arabako mugetan, eskabazio hauetariko asko neurri handiakoak izanik, Aralarreko tunela kasu (11,2 km.), Udalaiztekoak (4 km. tako bi tunel eta 6.5km. tako beste bat, edota Arlabanekoa (8,8 km.), besteak beste. Gutxi gorabehera trazaketaren gainerako 310 kilometroak lurrazaleratik doaz bestalde, tartean guztira 55 biadukto baino gehiago proiektaturik dagoelarik 20 kilometroko luzeran”.

Abiadura Handiko Trena, 1995eko abuztua.

II. Kontrainformazioa Aldizkaria

“Gaurdaino ez dugu honelako Monzoirik ezagutu, hainbeste elurrekin. Cho Oyu mendia elurrez gainezka dago eta hasierako asmoak aldatu beharrean aurkituko gara, ibilbide normaletik igotzen saiatuko gara”.

Felix Inurrategi, irailak 6.




Zer dela eta astelehenetako kontzentrazioak?

Joan zen astean gutun baten bidez jakin arazi genuen astelehenero, arratsaldeko 8etan, Herriko Enparantzan “Euskal Herria Askatu” lemapean kontzentrazioak burutuko genituela hainbat aldarrikapen kaleratuz. Joan zen astelehenean komunikabideen jokaera salatu genuen, datorren astelehenean berriaz, 60. artikulorekin aplikazioa eskatuko da.

Zer da 60. artikulorekin aplikazioa?

Espetxeetan bizi den egoera larriak (mehatxuak, jipoiak, trasladoak, errekuetoak, isolamendua...) eragin nabarmena izaten du presoengan, eta hauek, errepresio guzti honi aurre egiteko duten dena ematen dute. Baina badira gaisotzen diren presoak, eta oraintxe bertan sendaezinezko gaisotasunekin eta tratamendu berezia behar duten lau euskal preso politiko daude: Inaxio Mendiguren, Axun Sierra, Pilar Ferreiro eta Jon Iturriaga. Dagoeneko kasu horietarako eskatu da 60. artikulorekin aplikazioa, baina alferrik, barruan mantentzen dituzte oso baldintza txarretan egon arren. Esan behar da artikulua hau kode penalean jasota dagoela, eta beraien legeak ere ez dituztela betetzen. Preso politiko hauek etxean egon behar liriteke behar duten tratamendua jasotzeko, eta horren alde egiteko elkartuko gara datorren astelehenean Herriko Enparantzan. Hemendik gure deialdia Arrasateko herriari.

Etxean eta bizirik behar ditugu.



Aitor Etxabe

Amnistiaren Aldeko Batzordeetako partaidea.

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



ESKORIATZAko MAGISTERIO ESKOLAK

aukera hauek eskaintzen dizkizu:

- Magisteritzarako titulu berriak:
 - HAUR HEZKUNTZA
 - INGELESA
- Esparru ezberdinetan lana egin ahal izateko formakuntza egokia: eskolan, euskalduntze munduan, iharduera soziokulturaletan...

Informazioa:
IRAKASLE ESKOLA
ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tel.: (943) 71 41 57

1995-96
ikasturterako
matrikulazio-epea
zabalik dago.

Eguraldi ona eta jai giroa Marixekan

Aramaioko eta inguruko herrietako hainbat lagunek Marixekan pasa zuen eguna domekan. Urtero moduan Deikunde Amabirjinaren omenezko jaia ospatu zen Aramaioko Marixeka ermitan eta eguraldia ezinhobea zenez jende ugari hurbildu zen. Goiz partean futbol partidua, meza eta euskal dantzak izan ziren. Eguerdialdera herri bazkaria egin zen eta ondoren, herri kirolak eta erromeria.

Gaztea hilda aurkitu

Ostiralean J. A. B. gazte arrasatearra ohean hilotz aurkitu zuten, arratsaldean lo kuxka egitera joan eta gero. Oraingoz ez da jakin zerk eragin zuen 28 urteko gaztearen heriotza. J.A. Meatzerrekako baserri batean bizi zen eta herrian oso ezaguna zen. Hileta elizkizunak zapatuan egin ziren.

Irailean ere Txatxilipurdiren udalekuak

Joan den astelehenean



Asturiasen hildako meatzarien alde

Asturiasko Hunosa enpresan hildako meatzarien aldeko kontzentrazio isila egin zen ostiralean Arrasaten. CC.OO sindikatuak deituta, hogeitamar lagun inguru bildu ziren Portaloian meatzarien lan baldintzak salatu eta hildakoak gogoratzeko.

Ostegunean gertatu zen Hunosako istripua eta hama-lau meatzari hil ziren grisugasaren leherketaren ondorioz.

Txatxilipurdiren udalekuak hasi ziren. Iraileko udalekuan 3 urtetik 12 urtera arteko gazteek parte hartzen dute. Lehenengo txandarako 61 gaztek eman dute izena. Bigarren txandarako izenematea zabalik dago.

Euskal Herria Askatu

Gestorek deituta eta Euskal Herria Askatu

lemapean, astelehen arratsaldean kontzentrazioa egin zen Arrasaten. Kontzentrazioan ehun lagun inguru egon ziren eta ekintza horrekin komunikabideen jarrera kritikatu zuten.

Astelehenero, arratsaldeko zortziretan egingo dira kontzentrazioak Portaloian eta astero mezu desberdin bat aldarrikatuko dute.

JAIOTZAK

- Euri Bruña Iturbe. Abuztuaren 4ean.
- Ane Gonzalez Romero. 12an.
- Itxaso Perez Azedo. 10ean.
- Mikel Zalama Fernandez. 9an.
- Andrea Gonandia Agirrebeitia. 13an.
- Janire Palacios Garcia. 15ean.
- Onintza Villaescusa Argibai. 18an.

EZKONTZAK

- Mikel Martiartu Zugasti eta Miriam Esther Garcia Beltran de Guevara. Uztailearen 15ean. Zibilez.
- Carlos Cornes Lorenzo eta Maria Visitación Azula Montero. 22an. Elizaz.
- Juan Manuel Casado Dopazo eta Maria del Rosario Lozano Reinoso. 22an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Pilar Ansuategi Iregi. Abuztuaren 5ean. 87 urte.
- Angel Iturriotz Iturriotz. 5ean. 66 urte.
- Maria Gloria Gallastegi Lete. 23an. 63 urte.
- Julia Larrañaga Albistegi. 26an. 69 urte.

Juan Antonio Bolinaga Idarraga "Boli"

1967-VI-12 / 1995-IX-1

Bere hileta eta elizkizunetara etorritako guztiei eskerrak ematen dizkizuegu.



Beti gogoan izango zaitugu.

Bere emaztegaia, Esti; bere ama, Felisa; anai-arreba eta ezkon anai-arrebak, Pilar, Itziar, Iñaki, Jabi eta Txubi; lobak, Asier eta Jon: lehengusu eta gainerako ahaideak.

Arrasate, 1995eko irailak 8.




Juan Antonio Bolinaga Idarraga "Boli"

1967-VI-12 / 1995-IX-1

Eguakotxian, arratsaldian jarri zitzen burugogor isilik eta zarata barik alde egin zozun bizkor bizitza berez nekeza bada orain izango da gogor zure lagunak garen guztiok negar ein biher derrigor.

Barruan daukou atsekabea pixu itzel ta astuna zu barik, Juanito, eitten jaku luze gaua eta eguna ezingo dogu ain errex bete zuk itxitako hutsunea mundu guztiak jakin daixela hau zan lagunena laguna.

Zure koadrila eta lagunak



* Jose Mari Astigarraga

Erromesaldia

Aintzinatik eta kultur guztietan eduki ditu gizarteak egun, leku eta pertsona sakratuak edo bereziak: ilberria, udara-neguko soltzizioak, eguzki sortze eta eskutatze, mendi, harri, harkaitz-zulo eta zuhaitz bitxiak, ibai sakratuak, eta, zer esanik ez, azti, santoi edo sakralitatez jantzitako gizakiak.

Gizakia askotan sentitzen da ahul, trakets, ezertarako ez dela; eta, barne-barnean daraman osotasunaren, zintzotasunaren edo santutasunaren egarria asetuko duen salbamera eta misterioa bilatu eta eskuratzen saiatu da.

Misterioa eta salbamenaren adierazgarri, Kromle-txak, Indo ibaia, La Meca, Jerusalem, eta geroago, Erroma, katakunbak, Compostelako Santiago, Ernio, Gernika, Arantzazu, Dorleta eta abar luze bat, izan dira erromesen bide eta helmugak.

Erromesaren psikologiak

gizakiaren barne-muinean du bere sorlekua:

- Bizitza bera, jaiotzetik heriotzaraino dihoan erromesaldia da.

- Gure barne-kontzientzian maiz aurkitzen gara "pekatari", ez jator...

Non, nola "garbitu" gure erruak eta bihotzeko pakea lortu? Nola eraberritu gure izaera eta ordaindu egin ditugun akatsak? Izan ere...

- Gure barne-kontzientziak osotasunera, zintzotasun eta santutasunera deitzen

.....
"Eguneroko bizitzan lortu ezin dugun garbitasuna eta santutasuna erromesaldian aurkitu nahi du gizakiak"

gaitu. Une baterako bada ere, non aurkitu salbamen hori?

- Eguneroko bizitzan lortu ezin dugun garbitasuna eta santutasuna erromesaldian aurkitu nahi du gizakiak. Konturatu behar dugu ekinaldi honek osagai guztiak dituela: Bidearen nekea eta sakrifizioa (ordaina), pekatu-bide zaigun gizartea utzi (konbertsioa), eta Jainkoa, Ama Birjina, Santuak... aurkitu, bere babesa eskatu eta sentitu (bakea), otoitza (laguntza eskaria), sakramentuak (aitortza adibidez), helmuga edo gailurraren poza, eta abar, eta abar.

Jakina, aztikeri eta magian errez eror daiteke erromesa, eta erori da askotan, pentsatuz ekintza berak salbatuko diola nahiz bere bizitza eta bihotza ez aldatu eta berritu. Bihotz berritzea ez badakar, erromeriak ez du salbamen indarrik.

* PARROKOA

USTEAK USTE

ZE ONDO, LANERA!

Udarako oporrak gustora hasi genituen baina etorri zaigu iralaren hasiera. Euskalerriko txokoak oraindik ezagutu ez eta munduan beste puntara joan direnak eta Euskal-Herria ezagutu baina inongo mugarik pasa ez DUGUNOK, hasi egin beharko dugu lanean, ze erremedio! urte guztia horretan pentsatzen eta begiak itsi eta zabaltzerako berriro ere lantokian.

Gizakiak behar du bere atsedenaldia baina baita bere okupazioa: udako beroa..., neguan, mantari fuerte tira egin eta ez al da hobeto lo egiten? eta mitxelintxoak? ez al haiz gizendu?. Gutxiago lo egin eta lanak mehetuko zaitu. Lagun guztiak etxean, amateoren bazkaria,... asteburuak jai badira ez al da nahikoa? orain arte esandakoari ez jaramonik egin. nire burua konbentzitzen ari naizen udara amaierako haragi puska depresiboa naiz. Zein ederrak diren udako oporrak!

JON ALDANONDO

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Ez dago konparaziorik!



ERAKUSKETA BERRIA


- *Aukera zabala modelo guztietan*
- *Keramikan azken berrikuntzak*

Zatoz eta ikusi!



omu
keramikak

BILTEGIA ETA BULEGOA: Meatzerreka, 6 • Tfnoa/Faxa: 79 14 28 • ARRASATE
ERAKUSKETA: Otalora, 1 etxabea • Tfnoa: 79 07 20 • ARRASATE



Erreketara edo airera ahalik eta kutsadura gutxien botatzeka lortu nahi da.

Gutxiago kutsatuz produzitzeko plana hasiko da inguruko lantegietan

Deba Garaiko lantegietako produkzio prozesuak garbiago bihurtzeko egitasmoa jarri nahi du Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak. Hori dela eta, Deba Garaiko Mankomunitatean biltzen diren herrietako enpresari horren berri emango zaie datorren asteazkenean. Hilaren 13an egingo den bileran Ingurugiro Sailaren asmoak zeintzuk diren, Jaurlaritzak ematen dituen laguntza ekonomikoak zenbatekoak diren eta beste toki batzuetan planak izandako emaitza azalduko da. Lantegiek ahalik eta hondakin industrial gutxien bota dezatela lortu nahi du Jaurlaritzak plan horren bidez, eta horretarako, lantegi bakoitzeko akatsak jaso eta zein neurri har daitezkeen aztertuko da. Derri gorrez hondakinak sortzen diren lantegietan, berriz, hondakinak nola tratatu ikeritza da asmoa.

Asteazkenekoa hala ere, hasierako urratsa baino ez da izango. Ingurugiro Sailaren

asmoak entzun eta gero, enpresari bakoitzak erabaki beharko du bere enpresan gutxiago kutsatuz produzitzeko neurriak jarri nahi dituen. Hala erabakiz gero, planaren barruan sartuko da eta laguntza tekniko eta ekonomikoa jasoko du.

Plan horretan koordinatzaile lana egitea egokitu zaio Deba Garaiko Mankomunitateari. Aste honetan, asteazkenean izango den bileraren berri eman die Mankomunitateak inguruko 90 enpresari, batez ere galdaragintza, tresneria edo zerrailagintza arlokoak eta baita Fagor taldeari ere.

Bilera asteazken goizean izango da, Oñatiko Santa Ana antzokian. Egitasmoa Patxi Ormazabalak, Ingurugiro Sailburuak eta Esther Larrañagak, sailburuordeak aurkeztuko dute. Horiekin batera, Mankomunitateko arduradun batek eta IHOBek, planaren ardura duen elkarteak parte hartuko dute bileran.

95-96 ikasturtea hastear

Urtetik urtera gero eta ume gutxiago jaiotzen denez, ikastetxeetako matrikulazioak ere apurka-apurka behera egiten jarraitzen du.

Arrasateko umezaintzan 200 umerekin hasi zen ikasturtea atzo, iaz baino bi gutxiagorekin.

San Frantzisko Xabier ikastolan 13an hasiko da ikasturtea baina egun erdiz eta 22an egun osoz. Eskolaurrean 300 ume matrikulatu dira, lehen hezkuntzan (lehen mailatik seigarrenera) 478, OHOn (zazpi eta zortzigarren mailan) 166 eta REMen 140 ikasle. Aurreko ikasturtearekin konparatuta aurten zortzi ikasle gutxiago izango ditu S.F.Xek.

Musakolako eta Erguingo herri eskoletan astelehenean ekingo diote ikasturte berriari. Lehenengoan guztira 138 ikaslerekin, iaz baino bi gutxiagorekin eta bigarrenean 245ekin. Azken honetan ere matrikulazioa zertxobait jeitsi egin da. San Andres herri eskolan ere astelehenean hasiko dira eskolak eta guztira 167 gaztek ikasiko du eskola horretan, iaz baino 18 gutxiago.


San Viatorren lehen hezkuntzakoak eta O.H.Okoak astelehenean hasiko dira eskolan eta guztira 575 ikasle izango dira, iaz baino 34 gutxiago. Batxilergokoak 20an hasiko dira, guztira 223 ikasle izango direlarik, iaz baino hiru gutxiago.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 06
**Alkoholiko
Anonimoak**



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

HB eta EBrekin udal gobernuan sartzea erabaki dezake EAK

Arrasateko Eusko Alkartasunak baiezkota eman dio HB eta EBrekin udal gobernu taldean sartzeko konbiteari Xabier Zubizarreta Alkateak adierazi duenez. Baiezkota asteartean eman zion HBri eta horrela adierazi du alderdi horrek nahiz eta albiste hau idazterako orduan EAK ez zuen berria baieztatu nahi. Isabel Gallastegiren esanetan: "erabakia baiezkota izan daiteke baina datorren astera arte ez dugu horren berri emango". Gobernukide berriarekin, gobernu taldeak gehiengoaz gobernatuko luke hemendik aurrera.

Xabier Zubizarreta alkatearen iritziz, "Earen baiezkota gobernu taldearekin udal gobernu bermatuta dago eta egoera nor-



Earen baiezkota gobernu taldeak gehiengoarekin gobernatuko luke.

malizatu egingo da".

Oraindik erabaki barik dagoena batzordeen banaketa da, baina seguruenik Zerbitzu Batzordearen ardura hartuko du EAK eta akaso baita Euskara eta Hezkuntzare-

na ere.

Eari ezezik, EAJri ere luzatu zaio gobernu taldean sartzeko aukera. Hala ere oraingoz Alderdi Jeltzaleak ez dio aukera horri erantzun. J.M Loitik adierazi digunez,

"ustekabeen hartu gaitu EAren erabakiak eta gobernuan sartzeko aukera ez dugu aztertu oraindik". EAJk baiezkota emango balu, gobernu taldea lau alderdik osatuko luke. Alderdi sozialistari, berriz, ez zaio udal gobernuan sartzeko aukera luzatu. Zubizarretaren esanetan, "PSE-EEri ez zaio gonbiterik luzatu batez ere hartu duen jarreragatik, behin eta berriz Udalaren gobernagarritasun eza aldarrikatuz, eta alderdi horrek politikan erantzunkizun larriak dituelako.

Gainontzean, gobernu taldea hasi da lanean eta hile honetan udal plenoa egiteko asmoa ere badago. Plenoa, hilaren 15ean edo 22an izango da.



**Taberna-jatetxea
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

Ikerne Heriz
Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian


- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak

Jesusi Etxebarria MUSIKA ESKOLA

1995-96 ikasturteko matrikula epea zabalik
irailaren 4tik 30ra arte

Solfeo, abesbatza, armonia, pianoa, akordeoia, flauta, txistua eta kitarra (Azken hau modalitate guztietan, klasikoa, rock-a, blus-a, modernoa, etabar. solfeoz edo zifraz)

Iturriotz, 32 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 17 67



**Alkoholarekin arazoak
daukazu? Agian,
"Alkoholiko Anonimoek"
lagundu ahal dizute!!**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa) Tfnoa: 61 93 38

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11




Ramon Ormaetxea eta Jose Migel Landa

Arrasateko zikloturistek Paris-Brest-Paris lasterketa gogorrean hartu zuten parte, guztira 1.240 km.

Arrasatearrek Paristik Bresterako bidea ondo bete zuten baina bertako kontrola pasa ondoren, belauneko mina etorri eta bizikletatik jeitsi behar izan zuten. Lastima, oso lasterketa polita egiten ari ziren eta!

IZEN PROPIOAK

● **Jon Andueza** arrasatearrak eta **Anne Igartiburu** elorriotarrak Elkano-tarrak lehiaketa aurkeztuko dute ETBn. Irailaren 21ean hasiko da lehiaketa eta Euskal Herriko hainbat familik hartuko du parte. Jon Anduezak "Gutxi gorabehera" lehiaketa aurkeztu zuen ETBn eta Annek "Una Pareja Feliz" lehiaketa Tele 5n. Biak ATBko lankideak izan ziren.



● Estibaliz Ormaetxea

61 urteko arrasatearrak pintura erakusketa jarri du Lizarrako Banco Atlantico erakus-aretoan. Estibaliz duela 20 urte hasi zen margotzen eta bere estiloa inpresionista da. Estibaliz arrasatearra izan arren Donostian bizi da.

Bada udara honetan jairik jai ibili den arrasatearrik, batzuk lanean, obligazioz; besteak borondatez suposatzen dugu. Bilboko jaietan murgilduta harrapatu zituzten DEIAkoek Arrasateko konpartsa; baita Bermioko Akats aldizkarikoak beste arrasatear hori ere. Ezagutzen duzue?



Nora Giraldo eta **Anuska Rodrigo** arrasatearrak EEBB-tan izan dira uztailaren 8tik 24a bitartera. Arizona, California eta Nevada bisitatu dituzte besteak beste. Argazkia San Frantziskon aterata dago.



Eskoziarrak eman arren, gonadunak Arrasateko Eskola Politeknikoan ikasi duten hiru ikasle dira eta Eskozian daude Goier proiektua burutzen. Udara honetan Goier programako zuzendaria, Iñazio Irizar izan dute bisitari

eta ezusteko galanta hartu zuen bere ikasleak eskoziar jantziz agertu zitzaionean aireportura. Argazkian ezkerretik hasita **Xabier Bergaretxe**, **Inaxio Azkue**, **Inazio Irizar** eta **Jon Altuna**.

● Eider Madina eta Iratxe Berasaluze

'Ruta Quetzal'ean Pizarroren pausoak jarraituz

Eider Madina arrasa-tearrak eta Iratxe Berasaluze aramaixorak ez ahazteko moduko bidaia egin dute aurtien. Estatu eta Hego Amerika-ko beste 400 lagunekin batera, "Ruta Quetzal" abentura-bidaiairen partaide izan dira. 44 egunetan, Pizarrok XVI. mendean egindako ibilbidea ezagutu dute.

— Nola "Ruta Quetzal"eko partaide?

— **Eider:** Bidaia honetan parte hartu ahal izateko, lan bat egin behar izaten da lehenengo; historikoa, artistikoa edo musikala. Bibolina jotzen dudanez pieza bat konposatu nuenik.

— **Iratxe:** Nik berriz fagot obra bat prestatu nuen.

Estatu mailan parte hartu zuten lagun guztien artean, erdia finalera pasatu ginen eta azken froga egitera Bartzelonara joan. Zortea izan genuen eta sailkatutako 400 laguneren artean gu geunden.

— Laguntzarik izan zenuen lanak egiteko?

— **Eider:** Beno, duela bi urte eta iaz beste bi euskaldun joan ziren bidea egitera eta eurekin jarri ginen harremanetan, lana nondik norakoa izan behar zen jakiteko.

— Non ibili zarete?

— **Eider:** Pizarrok egin dako ibilbidearen antzerakoa



izan da. Bidaia Caceresen hasi zen Trujillora joateko, Pizarroren jaioterrira. Trujillotik mendiz mendi Segoviara eta handik Madril eta Toledora. Madril bueltatu eta han hegazkina hartu genuen Ekuadorrera, Guayakileraraino. Handik Quitora joan ginen. Bertan egun batzuk pasa genituen eta Pichincha sumendira igo beranduago. Ekuador bisitatu ondoren autobusez Perura joan ginen. Peru goialdean hasi ginen Cuzcoraino joateko, egunez egun, mendiz, trenaz edo autobusez. Cuzcon ekintza pila baten partaide izan ginen.

— **Miguel de La Cuadra Salcedok** zuekin egin zuen bidaia. Zer moduz moldatu zarete berarekin?

— **Iratxe:** Oso ondo, baina denbora guztian ez zen gurekin egoten. Gazez hotelara joaten zen lo egitera, gu aldiz, kanpinera. Bestela, oso tipo jatorra da eta gainera familia euskaldunekoa.

— **Zer moduzko harrera izan duzue Ekuador eta Peruko jendearen aldetik?**

— **Iratxe:** Ikaragarri ona. Perun oso harrera handiak eta zaratatsuak egiten zizkiguten, eskoletako umeak bandera

etabarrekin ateratzen ziren ongietorria ematera, baina nolabait, herri honek daukan pobrezia izkutatu nahi zigitela iruditu zitzaigun. Ekuadorren gertuagotik bizi izan dugu eguneroko bizitza eta pobrezia. Bazirudien, Peruk Ekuador baino itxura hobea eman nahi zuela.

— **Bidaiaiko politena?**

— **Eider:** Machupichu gustatu zait gehien. Liburuetan ikusita ezagutzen nuen eta banuen gogo gertutik ezagutzeko. Hiru egunez mendian ibilita heldu ginen hara eta izugarria izan zen.

— **Iratxe:** Niri ere horixe izan zen gehien gustatu zitzaidana. Gainera, bertan egin genuen lo, eta hori ez ei dago baimenduta. Gu izan gara Machupichuko zelaietan lo egin duten lehenak!

— **Horrenbeste denboran eta lekutan egonda, izango duzue anekdotarik, ez?**

— **Iratxe:** San Fermin egunean Miguel de la Cuadra Salcedori entzierroa egitea bururatu zitzaion. Ez geneukan zezenik baina Llamekin egin genuen. Oso ondo pasatu genuen.

— **Eider:** Anekdotak orokor bat Ekuador eta Peruko garraioak dira. Guztiak izorrratu zitzaizkigun baina ikaragarria da hango jendeak daukan pazientzia. Inor ez zen larritzen. Beste erritmo batekin bizi dira, dudarik gabe.

● **Machupichura hiru egunez mendian ibilita heldu ginen eta izugarria izan zen, hura gustatu zaigu gehien**



Neskametzza

emakume langabetuen patua

Maria Agirre

Gaur egun ez da erraza lana aurkitzea eta are gutxiago emakumeendako. Egoera horren aurrean, askok izkutuko ekonomian bilatzen du zereginen bat. Eredu horretan emakumeek bereziki zuzendutako eskaintzak daude: etxe-lanak egitea eta umeak zaintzea.

Nork ez du ezagutzen etxeren bateko lanak egin edo umeak zaintzen dituen emakumezkorik?

Azken horiei behintzat, erraz antzematen zaie zertan lan egiten duten; lan berdina dutenek elkarrekin ibiltzeko joera dutenez, umez inguratuta egoten dira eta. Herrian, adibidez, Sebero plazan eta Santa Barbara parkean biltzen da ume zaintzaile asko.

Etxe garbitzaileak ere an-

tzera, noiz edo noiz aldame-neko etxean ikusten da eta etxekoandrea ez den andraren bat alfonbra astintzen. Zein baldintzetan lan egiten dute? Zeintzuk dira euren eskubideak? Egia esan, neskametzan lan egiten duen askok ez daki eskubide batzuk eska ditzakela eta jakina, kontratatzaileak

ere ez bete behar batzuk dituela. Eta badakite, gehienetan ez dituzte betetzen.

LAN SARI FINKORIK EZ

Orain dela hogeitabi urte heldu zen Yoli Arrasatera. Lan bat nahi zuela eta, lau urte pasa zituen INEMera bueltara. Azkenean, langabezi txartela berritzeaz aspertu eta bere kontura lana aurkitu zuen. Etxeak garbitzen hasi zen. Orduka egiten zuen lan, ez seguru eta ezta kontraturik ere. Horrela pasa zituen hainbat urte. Orain, berriaz, umeak zaindu eta etxe-lanak egiteari ekin dio. Zortzi orduz lan egiten du eta gustora dagoen



arren, badaki zein den lanak duen desabantaila handiena: "Gehiago ordainduko balute gurea ere beste lanen moduko izango litzateke, baina egiten dugun lanerako, hile bukaeran soldatak txikiak jasotzen dugu". Neskameen munduan soldata txikia izateaz gain, langile bakoitzak kopuru desberdina kobratzen du; kontratua egitean alde biek euren artean lan sari bat hitzartzen dute eta. Langile gutxi daki, berriz, gobernua ateratako dekretu batean soldataren gaia finkatuta dagoela eta langileak hori eska dezakela. Dekretuan jasotzen denez, kasu horietan gobernua urtero ezartzen duen gutxienezko soldatak hartu behar dira kontuan. Aurten gorako jarrita dagoenari begiratu gero, astean 40 ordu lan egiten duenak gizarte segurantzaren barik hileroko 62.700 pezeta jasotzeko eskubidea du; gizarte segurantzaz, aldiz, 59.994 pezeta.

Desberdina da Arrasate-



ko etxe batean lan egiten duen Josefaren kasua. Orain dela zazpi urte etxe berean egiten du lana, baina orduka. Hainbat ordu sartu hainbeste kobratu. "Nahiago dut horrela lan egitea, kontratuaz baino gehiago kobratzen da eta. Gainera, bizitza garestitzen dena gehitzen didate urtero. Horrekin konformatzen naiz". Etxeak garbitzen duten gehienek, orduko 700 eta 800 pezeta bitarte irabazten dute.

Gure protagonistek bezala emakume gehienek urte luzez inongo gizarte segurantzaren barik egiten dute lan.



Neskameen soldata txikia izaten da eta langile bakoitzak, gainera, kopuru desberdina jasotzen du.

Gutxi kobratzen dutenez eta gizarte segurantzaz zertxobait gutxiago jasotzen denez, batzutan langileak berak eskatzen du ez egitea. Hala ere, langileak astean 26 ordu baino gehiago lan egiten badu, kontratatzaileak derrigorrez egin behar dio gizarte segurantzaren barik. Ordu gutxiago sartuz gero, langileak berak egin behar du.

ESKUBIDE GEHIAGO

Yolik eta Josefak, zeregin berdinean lan egiten zuten ezagunen bidez aurkitu zuten lana. Yolik dioenez, "etxe batean lan egin behar bada, garrantzitsua da langilea konfidantzazkoa izatea. Horregatik normalean lan barik dau den ezagunengana jotzen da edo bestela, lan hori egiten dutenei galdetzen zaie norbait ezagutzen ote duten".

Baina konfidantza horrek arazoak ekartzen ditu sarritan. Langilea umeez maitemintzen da edo etxekoan lagun egiten da eta bere eskubideak aldarrikatzea zaila egiten zaio.



Horrela, langile batzuk hitzartutako baino lan gehiago egiten dute, baina ez diete gainerako orduak ordaintzen. Antzerakoa gertatzen da aparteko soldatekin ere, nahiz eta urtean bi soldata extra jasotzeko eskubidea izan.

Bestalde, eta despidoa librea denez, kontratatzaileak muga barik jokatu ohi du. Horren arian Yoliri gertatutakoa har daiteke adibidez. Egun batetik bestera eta aurrez abisatu barik, lan egiten zuen etxetik bidali egin zuten. Baina hemen ere langileak badu gutxienezko eskubiderik. Falta larrikeria egiten ez badu behintzat, aste bat lehenago eman behar zaio despidoaren berri.


NORA JO?

Aipaturiko eskubideak ez ezik, beste batzuk ere badituzte. Kontua da etxeko langileek ahalmen batzuk dituztela baina batzutan ez dituztela ezagutzen, eta horien berri izan arren ez dakitela non aurkitu laguntza.

Herrian bertan ere ez dago nora jo. Gabezia hori konpondu nahiez eta langile horien egoera ezagutzeko, Arrasateko Emakumeen Asanblada hasi zen orain dela urte batzuk urrats batzuk ematen. Ahalegin horrek hala ere ez zuen arrakastarik izan, beldurragatik edo taldean lan egiten ez dutelako, langileen erantzuna eskasa izan zen eta. Era berean, lan hori egiten duten zenbat emakume dau den jakin nahi izan zuten, baina Gizarte Segurantzaren barik ari direnez, ezinezkoa izan zitzaien herrian zenbat diren jakitea. Noski, instituzioek ere ez dute inongo daturik.

Emakumeen Berdintasunerako bulegoak era berean ez du neskametzan dihardutenendako zerbitzu berezirik. Gaia aztertzeak asmoa dagoen arren, orainoz ez dago ezer.

Etxeko langileen eskubideak defendatzeko elkarteak Bizkaian dago. Orain dela ia hamar urte, etxeko langileen elkarteak sortu zuen Bizkaiko emakumeen asanbladak. Elkartearen helburua, langilearen lan baldintzak hobetzea eta euren eskariak jasotzea da. Horretaz gain, aholkularitza zerbitzua ere jasotzen du. Norbaitek informaziorik nahi badu, dei egin dezala (94) 415 54 83 telefonora.



AZOTOSTE

TABERNA



PINTXOAK • BOKATAK • KAZUELATXOAK • RAZIOAK

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera goizeko 8etatik zabalik
Larunbat eta igandetan goizeko 6etatik zabalik
(10etatik 12etara itxita)

Larrea Plazaza, 2 beheka • ARRASATE • Tfnoa: 79 68 30

AG AMAGARA

TERMOTESTER



Zelulitiaren prebentziorako
kanpaina



Irudi
uniformea

Leopardo
azalaren
irudia



Ederrago
senti zaitez

Tratamenduan
miraririk ziurrena
denboraz hastea da.
ZAINDU ZAITEZ
GAURTIK HASITA!



Gorputzaren
tratamendu
guztietan
%10aren
beherapena*.

AMAGARA

Estetika Zentruko gorputzerako
programa berriekin.

Erdiko Kale, 54 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 09 09

* Promozio
baliagarria
urriaren 15era arte

Rosa Lasagabaster

Estatuko lehen emakume entrenatzailea

Rosa Lasagabaster esko-riatzarra Arrasate eskubaloitaldeko entrenatzaile berria da. Rosak Heziketa Fisikoa ikasi zuen Madrilén eta eskubaloian egin espezializazioa. 24 urteko emakume honengan jarri dute konfidantza osoa eskubaloiko ordezkariak eta Rosa entrenatzaile lanetan ahal duen guztia ematen saiatuko da aurtengo denboraldian.

- Nola zuzendu ziren zure-gana?

- Duela hilabete Mariano Arrieta lehendakaria niregana etorri zen eta entrenatzaile bat behar zuela esan zidan. Hasieran ez nion erantzunik eman eta uda osoan gaiari hamaika buelta eman eta gero, baietz erantzun nien eta hementxe nago erronka handi honi aurre egiteko gertu.

- Emakume gutxi dute hain aukera ona goi mailako entrenatzaile izateko?


- Aukera ona da, baina erantzunkizun handikoa. Sekula ez dut entrenatu hain maila handiko gizonetako talderik, eta ilusioz beteta nagoen arren badakit lan gogorra izango dena.

- Une honetan zeri diozu beldurra?

- Gauzak txarto joateri. Hala ere, uste dut gauzak ondo eta txarto joate ez dagoela nire gain bakarrik. Jokalariak ere duten guztia ematen saiatu behar dira, azkenean guztion lana ligako partiduetan isladatu ahal izateko.

- Zein asmo dituzu aurtengo denboraldirako?

- Gure asmoa hurrengo mailara igotzea litzateke bai-



na gauzak astiro-astiro egin behar dira. Hasierako helburua mailari eustea da. Tidea ondo badoa beste zer baiten bila joango gara.

- Emakume izateagatik arazo gehiago edo laguntza gehiago izango duzu?

- Jendea ez dago ohituta emakume bat entrenatzaile lanetan ikusten. Eskubaloikoek niregan jarri dute konfidantza, beraz, ahal dudana onena emateko erantzunkizuna daukat. Nolanahi ere, ez zait gustatzen emakume eta gizonen artean desberdintasunak egitea. Hau da, ni ez naiz etorri taldera emakumea izatearren, entrenatzailea naizelako baizik. Hori izateko ikasi dut eta ikasitakoa praktikan jartzea baino ez dut nahi.

- Nola prestatu behar duzu aurrendenboraldia?

- Bost aste ditut horretarako. Denbora horretan erresistentzia eta abiadura landuko ditut pistan. Gero baloia-ekin teknika jorratzen hasiko gara eta baita taktikak ere.

- Denbora gutxi, taldea sasoi-sasoian uzteko, ezta?

- Bai, oso denbora gutxi daukagu eta fin egin beharko dugu lana. Niri bi aste gehiago izatea gustatuko litzaidake, baina denboraldia urrian hasi behar denez, dugun denbora ahalik eta ondoen aprobetxatu beharko dugu.

- Aurretik entrenatu duzu beste talderen bat?

- Madrilén heziketa fisikoa ikasten ari nintzenean infantil eta alebin mailako

taldeak entrenatu nituen, baina lehen mailan ez dut esperientziarik. Umeak edo nagusiak entrenatzea erabat desberdina da.

- Nolako iruditzen zaizu lehen maila?

- Serioa, horregatik jokalariei errendimendua eskatu behar zaie. Kantxan sufritu egin behar dute eta astean zehar gogor eta gogoz entrenatu. Arrasateko taldeak jokatzen duen maila ez da elitekoa baina bidean dago.

- Mutil asko izango duzu zure gidaritzapean, nola ikusten duzu zure burua agintze-ko orduan?

- Nire izaera gogorra da eta uste dut kuadrila hau aurrera ateratzeko gauza izango naizela. Entrenamendu bat zuzentzeko gauza ba naiz; gero liga hasten denean partidua bat eramateko kapaz naizen ikusi beharko da. Hasieran, dena dela, Jesus Mari Herreroren laguntza izango dut.

- Ez da erantzunkizun handiegia hasteko?

- Oporretan hori pentsatzen ibili naiz baina azkenean hartzea erabaki dut. Entrenatzaile izateko ikasi dut eta frogatzen ez badut sekula ez dut jakingo balio dudana edo ez.

- Zergatik ez dago emakumezko entrenatzailearik, ez direlako ausartzen edo ez zaielako aukerarik ematen?


- Aukera egon badago, baina emakume gutxi dago prestatuta entrenatzaile izateko. Heziketa fisikoa bi emakumek bakarrik aukeratu genuen eskubaloia, beraz atera kontuak!

Urbina-Maltzaga taldea 1995-96 denboraldirako

Urbina Maltzaga Saskibaloi taldeak itxura berrituta hasiko du aurtengo denboraldia. EBA ligan bigarren urtea beteko dutenez, iaz baino helburu handiagoak lortzen saiatuko dira. Taldearen aurkezpen

ofiziala irailaren 10ean izango da. Orduan Urbina Maltzaga eta Gasteizko Taugres Basconia izango ditugu lehian Iturripen arratsaldeko 6etan. 16an, berriz, Eskoriatzako kiroldegian Arrasateko saskibaloi taldeak

Burgosko Espolonen kontra neurtuko ditu indarrak eta 17an Frantziako talde baten kontra. Irailaren 23an 95-96 denboraldia hasiko da eta arrasatearren lehen aurkaria Donostiako Askatuak taldea izango da.



J. Jose San Pedro
18 urte
2.02 altuera
Hegalekoa
Bilbotarra



Andres Gutierrez
21 urte
1.94 altuera
Hegalekoa
Atxabaltarra



Pedro Rodriguez
21 urte
2.02 altuera
Hegalekoa
Badajozekoa




Ander Mallabiabarrena
18 urte
2.02 altuera
Pibota
Arrasatearra



Joserra Garai
28 urte
1.97 altuera
Pibota
Arrasatearra



Jorge Garbajosa
17 urte
2.04 altuera
Pibota
Madrildarra



Iñaki Arrue
28 urte
2.01 altuera
Pibota
Gasteiztarra



J. C Harris
26 urte
2.02 altuera
Pibota
Indianakoa




Alvaro Coca
24 urte
1.83 altuera
Basea
Donostiarra




Juan Pedro Cazorla
19 urte
1.89 altuera
Basea
Kanariarra



Jorge Fernandez
23 urte
1.90 altuera
Eskolta
Arrasatearra



Iagoba Gamarra
18 urte
1.90 altuera
Eskolta
Atxabaltarra



Iñaki Gomez
21 urte
1.96 altuera
Eskolta
Alicantekoa




J. Angel Samaniego
29 urte
Entrenatzailea
Donostiarra.



Roberto Azkarate
27 urte
2. entrenatzailea
Arrasatearra.



Unai Bergaretxe
25 urte
Fisioterapeuta
Arrasatearra



Mikel Basurko
25 urte
Delegatua
Arrasatearra

Eugenio Uribarren

Izozkien mago berria

Eugenio Uribarren izozki egilearentzat ez dago izozki bihurtu ezin daitekeen zaporerik. Duela 10 urte ekin zion zapore desberdineko izozkiak egiteari baina oraingo honetan, ziur aski beste inon aurkituko ez dituzuen bi izozki asmatu ditu: patxaran eta baba izozkiak.

— Noiztik izozkiak egiten?

— Duela 10 urtetik. Nire anaiak erakutsi zidan lanbidea.

— Saltzen dituzun guztiak etxean egindakoak dira?

— Bai, noski. 40 zapore desberdineko izozkiak egiten ditut, nahiz eta izozkitegian 18 besterik erakutsi ez. Egunero aldatzen ditugu, egun batetik bestera zapore desberdineko izozkiak jartzen ditugu.

— Errezeta propiorik baduzue?

— Bai. Etxean asmatu-tako errezeten bidez egindako izozkien artean, yogur, marrubi eta kiwi izozkiak saltzen ditugu baina berritasun handiena, patxaran eta baba izozkiak dira. Patxaran izozkia datorren urtean jarriko dugu salgai baina baba izozkia... ez dut uste salduko dugunik.

— Zergatik?

— Beno, baba izozkia lagunen artean jateko sortu



dut. Kontua da ostegunero, baba-jana egiten dugula Leintze elkartearen lagun batzuen artean. Orain lau urte hasi ginen. Bazkalosterako izozkia eramaten dudanez orduan bururatu zitzaidan baba izozkiarena. Pentsatu eta egin. Nire lagunak probatu dute jadanik eta egia esan. asko gustatu zaie. Nork daki; izozkia pixka bat hobetzen dudanean, akaso negu aldean jarriko dut salgai, babak, hotzean badira ere, neguan jaten dira eta!

— Eta patxaran izozkiare-

na, nola bururatu zitzaizun?

— Etxeko patxarana egiteko ohitura dut eta baba-jan hauetan patxaran guztia edaten zidaten lagunak, beraz, patxaran izozkia egingo nuela esan nien.

— Baba izozkia, gazia ala gozoa da?

— Gozoa da.

— Sukaldariek ez dute euren errezetak esateko ohiturarik baina hau nahiko kurio-soa da...

— Beno, izozki guztiak bezala, honek ere oinarri bat

dauka, "Mis" izeneko oinarri bat, eta noski, hori ez dut azalduko! Oinarria egin eta gero, babak botatzen zaizkio, baina kontu handia izan behar da: baba gehiegi baino hobe da baba-zuku gehiago botatzea, bestela izozkia oso lodia gertatzen da. Gero dena nahastu eta hozten lagatzen da.

— Askok kostatu zaizu baba izozkia egitea?

— Froga asko egin ditut eta gauza guztietan bezala, ezin lehen emaitzarekin konformatu. Baba izozkia lehen aldiz egin nuenean lodiegia atera zitzaidan, eta froga ezberdinak eginez hobetu egin dut. Dena dela, negu honetan izozkia hobetzen jardungo dut. Beste baba mota bat erabili behar dut: Gabirian oso baba onak aurkitu ditut eta 50 kilo enkargatu ditut!

— Ze izozki gustatzen zaizu gehiago: baba ala patxaran izozkia?

— Patxaranana. Arrakasta handia izan du. Badaukat hainbat enkargu.

— Arrasatearrek baba izozkia erosiko luketela uste duzu?

— Nire ustez, hasieran kuriositatez erosiko lukete, baina gero... ez dakit. Kontuan izan izozki honek beste 40 izozkiren konpetentziari aurre egin behar diola, eta hori zaila da.

● **Txitxinpe** ●

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

OLIVEROS DOKTOREA

PSIKIATRA

Irailetik aurrera kontsulta beste
toki batera pasatuko da.

Helbide berria:

CONSULTORIO MEDICO OLARTE
Olarre kalea, 43 behea
Tfnoak: 79 81 00 / 79 81 11
Arrasate

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

**TABERNA
ALOKAGAI**

Toki onean eta
bezero eginak

Informaziorako:

79 99 34



San Josepeko ermitako gurutzea (ezkerreko argazkian) 1974an eraman zen Bedoñako kanposantura.

B

edoñako kanposantu berrituarekin jarraiketan dugu aste honetan ere. 1974ko maiatzean onartu zuen auzoak lan horiek

egiteko aurrekontua, itxura berria eta hura zelan osatuko zen. Etxe bakoitzak 3.000 pezeta jarri zuen, Udalaren laguntza eta Diputazioare-naz gain. Aurreko asteko argazkian ikusten zen kanposantu zaharreko kapera botatzea erabaki zen eta haren lekuan gurutze handi bat jartzea. Hilerria bi lorategitan zatitu zen, erdian pasabide bat zuela. Sail bi horietan jarri ziren estelak, ordena jakin batean, antolakuntza hobetu

eta lekua egite aldera. 20 estela edo hilarriok atxarritz-koak dira eta antzinako euskal kanposantuetan bezala, mitologiarekin lotutako motibo jakinak dituzte landuta. Horietako bakoitza ez da jabe batena eta hamar urtean behin aldaketan den plaka dauka, hildakoaren izena jartzeko. Gaur egungo kanposantuan ageri den gurutze handia jatorriz ez da Bedoñakoa, eta ez da berria ere. Aurrez San Josepeko ermitarako

Guruzbide edo Kalbarioan zegoen, bertako gurutze nagusia zen. On Jose Luis Iñarra parroko zela egin zen eskabidea eta berak eman zuen hartzeko baimena. 1973ko uztailean sinatu zuen Udalak ere hura lekuz aldatzeko baimena, "erama-te lanak bedoñarren kontu eta aditu baten aholkulari-tzarekin, honda ez dadin". Horra, beraz, gurutze berbera, lehen zegoen lekuan eta gaur egun non eta nola dagoen.

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

German Moreno Izar paper-dendakoa

- Zenbat etxeko koadernoak saltzen dituzu? Bikoak: Uni-Papel eta Centaurokoak.
- Boligrafo beltza ala urdina; zein saltzen da gehiago? Urdina.
- Zuk zein duzu nahiago? Urdina ere.
- Zenbat diru gastatzen du koaderno eta abarretan eskolan hasi behar den ume batek? Ez dakit, umeek ez dituzte hemen erosten eskolako gauzak. Ikastolek jadanik esaten diete zein paper-dendetan erosi behar dituzten liburuak, beraz, gainontzekoa ere denda horietan erosten dute.
- Zeintzu saltzen dira gehiago: koaderno handiak ala txikiak? Handiak.
- Ikasturtean zehar zenbat fotokopia egiten dituzu egunero? Azterketa garaian pila bat, bestela, egun normaletan, 300-400 fotokopia.



- Eskola Politeknikoko ikasleak oso bezero onak izango dituzu! Guretako onenak dira, hona etortzen dira eta behar duten materiala erostera.
- Noiztik negozio honetan? Orain 16 urte zabaldu genuen denda.
- Non egon zara oporretan? Hemen inguruan ibili naiz eta oso ondo pasatu dut.
- Postal asko jaso duzu? Pare bat besterik ez; Tenerife eta Tarragonatik.
- Biziorik baduzu? Ondo jan eta ondo edan.
- Zer gosaltzen duzu? Udan fruta eta ezitia, neguan berriz berakatz zopa.
- Maiteminduta zaude? Maitasun kontuak aspaldi desagertu ziren, orain beste gauza bat dago....
- Telebista ala irratia; zer nahiago? Irratia. Telebistan futbol eta pilota partiduak besterik ez ditut ikusten.

IRRATI TAILERRA

- 16 urtetik gorakoentzat
- Ostiral arratsaldetan, 7etatik 9etara
- Irailaren 29tik Santamasa arte
- Matrikula: 3.000 Pta / 1.500 Pta ikasle eta langabetuentzat
- Izen emateak: Gazte Bulegoan (Tfnoa: 77 00 65)



Arrasate Irratia

Plaza mugatuak!




• ESAERA •

*"Jakintsuaren mendeku
onena irainaren arrazoia
ahaztea da"*

LOPE DE VEGA


• JEROGLIFIKOA •

A T O N



Ez oso buru zorrotzekoak.

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Iñaki, ALMENeko lehendakaria. 8. Gutxi irauten duena. 10. Alfabetoko 3. letraren izena. 11. Ordenadoreetan, saketzeko pieza. 12. Korta. 14. Akize, Landetako herria. 15. (Ald.) Itsasteko goma. 17. Itsasoan ugari. 18. Mitologia grekoko hegalaria. 19. Potasio nitrato naturala. 20. Txakur.

Bertikalak 1. Bizia duena. 2. Oreka-ari-ketak egiten dituen. 3. Eguzkiaren jainko egip-toarra. 4. Titi, bular. 5. Inolako. 6. Inoiz ere. 7. Berehala bukatzen dena. 9. KILOko kontsonanteak. 13. Oiloak uxatzeko hitza. 16. Osoa, ezer falta ez zaiona. 18. Iridioa.

• HOROSKOPOA •

Aries Oporrak pasatu direnetik izugarri aldatu zara.

Taurus Kalera moztortuta ateratzen zarela uste du jendeak.

Gemini Gomendio bat: bikotea lortzeko iraultza egin behar da.

Cancer Udagi-roak ez dizu onik egin. Amets larregi duzu.

Leo Ilea jausten hasi zaizu. Seinale txarra.

Virgo Gauetan amesgaiztoak edukitzen dituzu eta egunez amets beroak.

Libra Noiztik ez zara zinemara joan? Asteburuan, zinemara.

Scorpio Oporrei bukaera gozoa eman behar zaie, bestela...

Sagitaris Ez da erraza baina lana bilatzen hasi beharko duzu.

Capricorn Kostaldeko giroak on egin dizu. Beste bat dirudizu.

Aquarius Eguerdian jeikitzen bazara, ez zara txistulari ona izango.


Piscis Ez da askotxo zure lagun one-na ordenagailua dela esatea?

Otxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnok: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!



Anna de Codorniu

• TELEBISTAREN TXOKOA •



Bi aurkezle "rockera"

Hauexek dituzue joan den astean iragarritako "Nor Nori Rock" musika programa berriko bi aurkezleak: Kaitin Allende eta Lierni Uribarren.

Kazetaritza ikasketak amaitu berri dituzte eta telebista munduan sartzeko irrikitan ei daude. Kamara aurrean egotera ohiturarik ez duten arren, musika programa berri honi ekiteko gogo handia dute.

Kaitin eta Liernik Euskal Herriko eta Arrasateko musika taldeetako partaideei elkarrizketa sakonak egingo dizkiete. Elkarriketez gain, programa bakoitzean atzerriko talde bati buruzko erreportaia aurkeztuko digute.

"Nor Nori Rock" urritik aurrera hamabostean behin asteazkenero 9.30etan izango da. Orain baduzu musika berriak non jaso!

• KOMIKIA •



• PROGRAMAZIOA •



ATBko AURKEZLE BERRIAK

• **Itxaro Zubillaga** eta **Esti Loiti**: Atxabaltarra eta arrasatearra. "Mondrasport" aurkeztuko dute elkarrekin astelehenero.

• **Eider Otxoa**: Atxabaltarra. Umeendako lehiaketaren arduraduna izango da, asteartetan.

• **Kaitin Allende** eta **Lierni Uribarren**: Arrasatearrak. "Nor Nori Rock" musika programa aurkeztuko dute hamabostean behin, asteazkenetan.

• **Gorka Etxabe**: Atxabaltarra. "Saski-Mondra" saskibaloi programaren aurkezlea hamabostean behin, asteazkenetan.

• **Jon Iñaki Lasa**: Arrasatearra. Tertulia edo mahainguru bat aurkeztuko du ostegunetan, pil-pilean dagoen gai bati buruz.

• **Maria Agirre**: Atxabaltarra. "Astebete" programa aurkeztuko du ostiraleror.

• SOLUZIOAK •

Jeroglifikoa:

8. Kl. 13. Ux. 16. Oro. 18. Ir.
3. Ra. 4. Diti. 6. Ezzelako. 7. Joankor.
Bertikalak: 1. Bizidun. 2. Orekar.
Nito. 20. Txakur.
Dax. 15. Alok. 17. Ur. 18. Ikaro. 19.
ko. 10. Ze. 11. Tekia. 12. Ikulu. 14.
Horizontalak: 1. Bordes. 8. Iraze-

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

*Etxeko ardo gorria eta beltza
Kafea*

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

Etxebizitza

• **Behe solairua alokatzen** da Grupo San Juan medikuen kontsulta edota profesionalendako. Dei egin gausez 79 14 29 tfnora.

• **Neska bat behar da** pisua osatzeko irailetik aurrera. Tfnoak.: uztailen deituz gero 79 11 85, abuztuan 74 13 38.

• **Etxea salgai Aretxabaletan**, 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Altzari guztiekin. Prezio interesgarria. Dei egin gausez 79 67 26 tfnora.

• **Pisua alokatu nahi nuke Arrasaten** edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 00 27. Txotxe.

• **Larrea plazan pisua alokatu nahi dut.** Tfnoa: 79 36 79.

• **Ikasleendako pisua alokagai** Uribe auzoan. Tfnoa: (94) 447 09 96.

• **Lagun bat behar da** Donostiako erdialdean pisu merke bat osatzeko. Tfnoa: 79 86 06. Itziar.

• **Jende gaztea behar da pisua osatzeko.** Tfnoa: 62 92 42. Jon.

• **Familia baten etxean logela bat eskaintzen da.** Tfnoa: 79 58 22 edo 79 40 53.

• **Logela bat alokatzen da** Arrasateko erdialdean. Tfnoa: 79 42 70.

Lana

• **Neska batek goizetan** umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 68 18. Nerea.

• **Ile apainketan diplomatu gaztea** abuztutik aurrera lan egiteko prest. Tfnoa: 79 63 18. Rosa.

• **Emakume euskalduna umeak** edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 07 73.

• **Neska bat behar da** domeketan denda baten lana egiteko. Kotxea beharrezkoa da. Tfnoa: 79 47 85. Emilio.

• **Neska gaztea** taberna, jatetxe edo denda batean lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 38. Leire.

• **OHOk klase partikularrak** emango nituzke. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 97 38. Leire.

• **Neska euskaldun eta langilea** eskaintzen da edozein motako lanak egiteko (etxeko lanak, etab.). Dei egin 76 64 60. Alaitz.

• **Neska gertu etxeko lanak egin** edo umeak zaintzeko. Goizez lan egingo nuke. Tfnoa: 79 68 18. Nerea.

• **Ingelesezk klaseak emango nieke** EGB, 1. eta 2. REMeko eta COUko ikasleei. Mekanografia eta informatikako klaseak ere emateko gertu. Tfnoa: 79 68 18. Agurtzane.

• **Ile apainketan diploma ateratako neska** gaztea lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81

• **Ile apainketan diplomadun neska** gaztea lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81.

• **Umeak zaindu eta etxeko lanak** egiteko emakumea behar da. Tfnoa: 79 49 92.

• **Neska prest ume txikiak** zaintzeko eta etxeko garbitasuna egiteko. Tfnoa: 79 68 18.

• **Ingelesezk klase partikularrak** ematen dira, tituloduna naiz eta akademiatan esperientziarekin, Tfnoa: 79 28 98.

• **Klinika eta geriatrian** esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 09.

• **Emakumea gertu** egun erdiz edo orduka lan egiteko denda edo taberna baten. Tfnoa: 79 53 18.

• **Emakume euskalduna behar da** goizez ume bat zaintzeko. Tfnoa: 77 01 31.

• **Mutiledo neska**, denda baten lan egin nahi baduzu, datuak bidali 259 postakutxara.

Salerosketak

• **Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke.** Dei egin arratsalde 77 04 98 tfnora.

• **Ingelesezk klase partikularrak ematen dira.** Dei egin 5etatik 9etara 79 22 86 tfnora.

• **XR-2, SS-Y kotxea saltzen da.** Zuri kolorekoa eta egoera onean dago. Tfnoa: 71 42 19.

• **44-45 zenbakiko Doctor Martens** botak salgai. Beltzak dira, 10 zulodunak. Tfnoa: 79 97 38. Bob.

• **Suzuki deskapoteblea** (kapota gogorra) salgai. 5 abiadura. Tfnoa: 79 03 17.

• **GAC motor txikia prezio onean salgai.** Tfnoa: 79 81 70. Ordu 2etatik 5etra.

• **Bigarren eskuko soinua erosiko nuke.** Tfnoa: 79 12 70

• **Ordenadorea salgai.** 386-DX-40 eta 32 bits-eko bus lokalarekin. 4 mega RAM eta 170 mega ditu. Softwarea jarrita dauka. Prezioa: 140.000 negoziagarriak. Tfnoa: 79 73 82.

• **Kontzertuko Begini markako akordeoia salgai.** Kromatikoa eta konbertidoreaz. Eskuinean 63 mota, 15 erregistro eta 120 baju. Dei egin 15tik 16ra edo 22tik aurrera 45 87 06 tfnora.

• **Ezkontzako soinekoa salgai** marfil kolorekoa eta oso prezio interesgarrian. Tfnoa: 79 41 31.

• **Hobby- 475 markako karabana salgai.** Abantze, hozkailua eta berogailua dauka. Tfnoa: 79 84 17.

Denetarik

• **Ume pultsera bat galdu da** ekainaren 10eko asteburuan. Tfnoa: 79 70 89.

• **Santa Teresa de Jesus**, mila esker. F. G.

Aste Gazte

Bekak

- Bergarako udalak "Justo Garaite Arriola" soziologiari buruzko ikasketa-beka deitu du. Ikerketa lana euskaraz burutuko da. Iraupena 11 hilabetekoa da. Diplomatuei edo maila bereko titulodunei zuzenduta dago. Epea: irailak 30.
- CSI-EFEk kazetaritza zientifikoko bi beka deitu du. Baldintzak: kazetaritzan lizentziatua; esperientzia baloratzen da. Epea: urriak 16.

Ikastaroak

- Argazkigintza ikastaroa,

sakontze maila (Edukiak: argia, kolorea, filtroa, pelikula, LIT, cibacrome,...). Urrian, arratsaldeko 7.15etatik 9.15etara. Matrikula: 3.500 pta. 2.000 pta. Ikasle eta langabetuentzat. Plazaz mugatuak.

Gazte Txartela


- 93-95 Gazte Txartela duzuenok berrituz egin behar duzue, jadanik iraungita baitago. Txartel berria Kutxan eskura dezakezue (15-25 urte bitartekoek), 500 pta.ren truke.

Lehiaketak

- "Literatur eta komiki lehiaketa", Urretxu eta Zumarragako udalek elkarlanean antolatuta. Modalitateak: bertso-paperak, narratiba, poesia eta komikia. Epea: irailak 22.
- "Emakume kontari" II. narratizio-lehiaketa. Nahi duten emakume guztiek har dezakete parte, bakoitzak, gehienez, 3 lan aurkeztuz. Epea: irailak 29.
- Gazteok bizikletan" VI. Argazki lehiaketa. Bi kategoria: A) Deba Garaiko 11-18 urte bitarteko gazteak; B) 19-35 urte bitarteko edozein. Zurbeltz zein koloretan, gehienez, 3 argazki. Epea: urriak 11.

"Rock hitzak, egun, ez du ezer esan nahi. 'Putakume' gehiegik erabili du".

**MANU CHAO
(MANO NEGRA)
"EL CORREO"**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**



ORDUA DA!



EZ GALDU EUSKARAREN TRENA!

- Euskalduntze maila guztiak
- Alfabetatze
- Ikastaro bereziak

Matrikula epea: irailaren 4tik 13ra arte
Plaza mugatuak.

Beka sistema
daukagu!



UDAL EUSKALTEGIA • ARRASATEKO UDAIA

Informazio gehiagorako:

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) • Tfnoa: 79 70 77 • 79 77 88

Laguna berria
RXE 2.0S 16V / RTI 2.0S 16V



MECA



Berezienak

Twingo Wind, A. A. eta pack elektronikoa	1.275.000 Pta.
Clio Chipie Diesel, 3 p	1.475.000 Pta.
R. 19 Driver 1.4e, 4 p	1.738.000 Pta.
Laguna 1.8 R.T., A. A.	2.715.000 Pta.

... eta beste batzuk.

* Stockean dauden autoentzako prezioak.